

ATZEKOZ AURRERA

Buruko minaren beldurrik gabe

Donostiako Sagardo Eguna ospatu dute Konstituzio plazan, giro ederrean, eguraldia lagun. 34 sagardotegitako sagardoa dastatzeko modua izan dute bertan bildu direnek.



Gipuzkoako sagardotegiek elkarlari garrantzitsua dute urtero irailean Konstituzio plazan. JUAN CARLOS RUIZ / ARGITZI PRESS

2016-09-04 / Urtzi Urkizu



0

E guzkipean sagardo asko edatea arriskutsua dela diote dakitenek. Buruko min galantarekin etxeratzeko arriskua dagoela aipatu ohi dute. Atzo goizean, ordea, halako arriskuekin ahaztuta zeuden Donostiako Konstituzio plazara bildu ziren euskal herritarrak eta atzerriko turistak. Donostiako 31. Sagardo Eguna ospatu zuten, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak antolatuta. Giro onaren erakusgarri,



0



Ondarroako (Bizkaia) dozena bat andre Japoniako neska batzuekin eskutik helduta ari ziren dantzan. «Lehen aldia da Donostiako Sagardo Egunera etortzen garena. Hamabi lagun etorri gara», esan zuen irribarrez Pakita Urrestik, lagunei argazki bat ateratzen zien bitartean. Sagardo edalontzia eskuan, harrituta zeuden Los Angelesetik (Kalifornia, AEB) iritsitako Chris eta Mai Kaneshiro: «Inoiz ez dugu halakorik ikusi. Sagardoa oso ona da, eta hemengo jendea oso abegikorra». Argazki kamera handi batekin zen Alemaniatik iritsitako Remus Brujan: «Gustukoa dut sagardoa, baina ezin da asko edan».

Konstituzio plazako jaia ondo baino hobeto ezagutzen dutenak ere ari ziren sagardoa dastatzen. Ereñotzuko (Hernani, Gipuzkoa) Agustin Aranburu urtero joaten da Donostiako Sagardo Egunera: «Giroa sekulakoa da, oso ona. Beste sagardo egun batzuen aldean, Donostiak beste xarma bat du, berezitasuna badu». Lezoko (Gipuzkoa) Laura Muñozek eta Astigarragako (Gipuzkoa) Alex Urbietak ohitura dute urtero elkarrekin joateko jaira. «Halako jaiak goizez izatea gustatzen zait», azaldu zuen Muñozek. «Gipuzkoako sagardogile gehienak hemen daude, eta hori ez da beste toki batzuetan gertatzen», esan zuen Urbietak. «Nik jai honen propaganda egin ohi dut. Sekulakoa da», ihardetsi zuen Eduardo Garciak, Badajozen (Espainia) jaio baina azkeneko 43 urteak Donostian egin dituen gizonak. Josetxo Jimenez donostiarra ere «ia gehienetan» joaten da Sagardo Egunera: «Zoragarria da. Ingeles talde bat ikusi dut, gida batekin, eta zeharo harritua zeuden denak».

Gipuzkoako 34 sagardotegitako 8.000 botila inguru zabaldu zituzten atzo. Ordiziako Tximista eta Zubietako Araeta sagardotegiak lehen aldiz zeuden Konstituzio plazan. Tximistako Amaia Blazquez «ilusio handiarekin» mintzo zen: «Amets bat da, egia bihurtua. Aukera bat da erakusteko Goierrin ere sagardo ona egiten dela». Araeta sagardotegikoek udarearekin egindako edaria ere eman zuten dastatzeko. Sagardo aparduna egiten hasi dira, berriz, Zeraingo Oiharte sagardotegikoak. «Iaz 1.000 botila saldu genituen. Aurten 4.000 ekoitzi ditugu, eta ikusiko dugu», azaldu zuen Maite Retolazak. Sagardo mota hori ere ekoizten du Astigarragako Astarbek.

Trago eta trago artean, argazki ofiziala atera zuten erakunde

publikoetako ordezkariekin. Eta sagardogile elkarteak Elhuyar fundazioa omendu zuen, *Sagardoa bidegile* dokumentalarengatik.

0 Iruzkin **Berria**

♥ Recommend ↗ Partekatu



Start the discussion...

Be the first to comment.

✉ Harpidetu

🗨 Gehitu Disqus zure webgunera

Pribatutasuna

Orain
berria laguna **gehiago da**



Urtzi Urkizu

Jarraitu @urtziurkizu

PUBLIZITATEA

Bizigiro saileko albiste gehiago

Aplikazio oso, moderno eta bizia kaleratu du BERRIAk

Indarrez betetako rocka

Kulturen topagune

Albiste nagusiak



Maddalen Iriarte: "Madrilek idatzia dauka betoa; adostu dezagun zer egin gero"



Charlotte ketan da, eta salbuespen egoera jarri dute



Euskararen gotorleku bila

Gehien irakurriak

- 1 Emisioak eten eta lau hilabete eta erdi geroago, ETB berriro ikusi ahal izango da Nafarroan bihartik



- 2 Maddalen Iriarte «Madrilek idatzia dauka betoa; adostu dezagun zer egin gero»



- 3 Motxila

- 4 Sindikatuek salatu dute alor publikoan behin-behineko langileak %35 direla



5 "Ereserkiak ez nau asko
kezkatzen; adostutakoa izan
dadila. Orain nahiago dut herri
honen arazoei aurre egin"



6 Fernandez Diaz: "Batzuek orain
irabazi nahi dute Gerra Zibila"



7 Bost urtera, orubea hutsik



8 Mundialak

9 Adostasun aukera eta liskar
arriskua



10 Euskararen gotorleku bila



Berria.eus - Euskal Editorea S.L.

Telefonoa: 943 304 030 • Faxa: 943 590 172

Helbide elektronikoak: Webgunea: webgunea@berria.eus |

Publizitatea: publi@bidera.eu

Harpidetza: harpidetza@berria.eus

Lege Informazioa | Pribatutasun politika |
Cookieak | Publizitatea

© Creative Commons lizentzia



berria
taldea

berria

bidera
zerbitzuak

[www.euskalherriko
pLaza.com](http://www.euskalherriko
pLaza.com)

Mauka

BADOK

HITZA



Hamaika
telebista

iragarkilaburrak.com



TALEA
ALDARAKO ALDARAKA